

## PRENTSA-OHARRA

# Zazpi ikastetxek aurkeztu dituzte beren ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak, zeinei esker ikasleek komunitate-zerbitzuak eginez ikasi baitute

Zaraten kontrako ekimenak auzoan, bidezko kontsumoaren aldeko jarduketak eta esklerosiak jotako gaixoendako musikoterapia; horiek dira landutako jardueretako batzuk

Hilabete hauetan zehar, zazpi ikastetxetako ikasgelak ikaskuntza-zerbitzuko gela bihurtu dira, komunitateari zerbitzua emanez ikasteko baliabide bihurtuta. Claret Larraona ikastetxeko ikasleek zarata murriztu nahi izan dute, bizitza hobea lortzeko. Beren inguruneko zarata-maila aztertu zuten, baita horrek zer nolako eragina zuen Iturramako osasunean ere, eta zenbait neurri abiatu zituzten. Lehenengo neurria beren ikastetxean bertan hartu zuten, sirenaren hotsa musika klasikoarekin ordeztuz. Sagrado Corazón ikastetxeko haurrek ekimen-sorta zabala prestatu dute bidezko kontsumoa bultzatzeko: bidezko merkataritzako azoka bat, elikagairik xahutzen ez duen jantoki osasungarria eta elikagaiak biltzeko banku bat. Hezitzaileen Eskolak zenbait ideia bilatu zituen Nafarroako Esklerosi anizkoitzaren Elkartearekin elkarlanean aritzeko; eta “mila aurpegi dituen gaixotasun” gisa ezagutzen den gaitzari aurre egin nahi izan zion *Mila irribarre, mila aurpegiarendako* proiektuarekin. Ikastetxeko horretako ikasleek musikoterapia-saioak sortu zituzten, eta hamaiketakoak prestatu eta hitzaldiak eman zituzten gaixotasuna ikusgai egiteko.

Hiru ikastetxe horiek izan dira irabazle Iruñeko Udalak sustatutako proiektu-deialdian; lehiaketa hori ikasturte honetan estreinatu da, xede hartuta horrelako ikaskuntza-mota bultzatzea hirian, balio handia sortzen duelako bai hiriarendako, oro har, bai ikasleendako. Programa honetan irakasle eta ikasleek hezkuntza-proiektuak prestatu eta abiatzen dituzte, halako moduan non komunitateari begirako zerbitzu bat ere txertatzen baitute, hiri osoan ikusgai egiteko beren gizalegezko konpromiso solidarioa.

Gaur goizean, Kondestablearen jauregiko ekitaldi-aretoan, proiektuen amaierako aurkezpena egin da, eta ekitaldian parte hartu dute proiektuak gauzatu dituzten zazpi ikastetxeetako ikasle eta irakasleek. Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari Maider Beloki, Alorreko zuzendari Maitena Muruzabal eta Hezkuntzako udal-teknikari José Manuel Santana bertan izan dira.





Hauek dira parte hartu duten zazpi ikastetxeak: Claret Larraona, San Juan de la Cadena HLHIP, Sagrado Corazón ikastetxea, Hijas de Jesús ikastetxea, Hezitzaileen Eskola, M<sup>a</sup> Inmaculada Lanbide Heziketako Ikastetxea eta Julio Caro Baroja BHI.

Haurren kategorian, Claret Larraona eta San Juan de la Cadena ikastetxeek eskuratu dituzte sariak; DBH eta Batxilergoko kategorian, Sagrado Corazón eta Hijas de Jesús ikastetxeek egindako lana goraipatu da, eta Lanbide Heziketan, Hezitzaileen Eskola eta M<sup>a</sup> Inmaculada zentroek egindakoa.

### **Hezkuntza eta komunitate-zerbitzua**

Gaur aurkeztu diren proiektuen abiapuntua izan da Iruñeko Udalaren deialdia proiektuak egiteko eta irakasleendako prestakuntzarako; deialdi horren bitartez saritu eta finantzatu nahi zen ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak abiatzea, hartara ikasleek komunitate-zerbitzuak eginez ikas dezaten. Hamar ikastetxek eman zuten izena prestakuntza-saioetan parte hartzeko, eta saio horiek 2017ko irailean eta urrian egin ziren.

Horrez gain, ikastetxeek aholkularitza jaso dute proiektuak egiteko, eta lan-metodologia didaktikoarekin bat idatzi dituzte; metodologia horrek, hain zuzen, ikastetxea non kokatuta dagoen eta bertako komunitateari begirako zerbitzuak txertatzen ditu ikasleek landu behar dituzten curriculum-eduki, gaitasun eta balioekin batera. Horrela, asmo pedagogikoak eta solidarioak bat egiten dute, ikasleek beren ikaskuntza propioan parte hartzen dute, eta gizartearekiko arduratsuak dira.

Aurkeztutako zazpi proiektuak poster banatan laburbildu dira, eta hori oinarri hartuta ikastetxe bakoitzak 10 minutuko azalpena egin du, bere proiektuaren nondik-norakoak aurkezteko. Horrela, proiektu irabazleak ez ezik bigarren geratu diren beste hiru ekimenak ere ezagutu ahal izan dira (San Juan de la Cadena, Hijas de Jesús eta M<sup>a</sup> Inmaculada ikastetxeenak), baita Julio Caro BHIren proiektua ere.

San Juan de la Cadena HLHIPko ko ikasleek *Koltana da, eta ez da jasangarria* ekimena landu dute, eta zenbait jarduera sustatu dituzte gizarteak eta herritarrek kontzientzia handiagoa izan dezaten mugikor eta tabletatan barra-barra dagoen material horren kontsumoaren gainean. Hijas de Jesús ikastetxeak proiektu hau sortu du: *TIKI-TAKA: zure ekimenak badu garrantzia, zure laguntza abian!* Horren bitartez, adin desberdinetako biztanleei zuzendutako aisia-jarduerak egitea proposatu dute: adinekoekin bizipoza partekatzea, haiekin egotea eta bisitak egitea zahar-etxeetara; denontzako jostailuak lortzea halakorik ez duten haurrentzat; eta eskola-jazarpena prebenitzeko ekimenak egitea, etxabeetan hitzaldiak emanez eta jarduerak antolatuz gazteen aisialdirako klub batean.

M<sup>a</sup> Inmaculada Lanbide Heziketako ikastetxeak *Zu bir-landatzen* izenburua jarri dio proiektuari, zeinaren bidez hiri-baratze bat diseinatu eta prestatu baitu, bertan sendabelarrak hazteko. Ikasleek lantegi bat diseinatu dute Saray kolektiboarentzat, argibideak emateko bularreko



minbiziaren aurkako tratamenduetan azala zaintzeko erabilgarri diren parafarmazia-produktuen inguruan. Caro Baroja BHIk *Bidaia-kaiera* egin du, joan-etorriko bidaia bat Umetxea elkartearekin. Ekimen horren bitartez ikusgarri egin nahi izan dituzte Sanduzelain dauden topaguneak aisialdi osasungarria lantzeko eta auzoko gaztetxoak arlo akademikoan laguntzeko.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 30ean